

09/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO EKAINAREN 26AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Anoetako Udaletxean, 2023ko ekainaren 26an, arratsaldeko 18:36etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- 2023KO EKAINAREN 17KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2023ko ekainaren 17an egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- OHIKO OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA FINKATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta gai-zerrendako puntu honen gaineko ondorengo proposamena aurkeztu du:

- Udalbatza Osoaren ohiko bilkuren maiztasuna hilean behin finkatzea, hileko azken asteartean, arratsaldeko zazpitan.

- Finkaturiko egun hauetakoren bat jai egokituko balitz, hurrengo lanegunean egingo litzateke, ordu berean.

- Alkateak egun hori aurreratu edo atzeratu ahal izango du, jaiegunen edo ustekabeko gertaeren kasuan. Kasu horretan, alde zuzenetik, udal talde politikoei jakinaraziko zaie eta osoko bilkurari ohiko trataera emateak talde guztien adostasuna beharko du.

Idazkari Kontu-hartzaileak proposamen horren aldeko txostena egin zuen 2023ko ekainaren 21ean, ondorengoak jasota, besteak beste:

“...

LEHENA. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, honakoa xedatzen du bere 38.a) artikuluan:

[...]

Eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar lanegunen barruan, alkateak udalbatzaren bilkura berezietarako deia egingo du, honako gai hauei buruzko erabakiak hartzeko:

a) Osoko bilkuren maiztasuna.

b) Informazio-batzorde iraunkorrak sortzea eta osatzea.

c) Udalbatzaren ordezkariak kide anitzeko organoetan izendatzea, osoko bilkuraren eskumenekoak badira.

d) Alkateordeak, gobernu-batzordeko kideak (halakorik egon behar bada) eta informazio-batzordeetako lehendakariak izendatzeari buruz alkateak hartutako ebazpenen berri izatea, baita alkatetzak egoki iritzitako eskuordetzeen berri ere.

...].

BIGARRENA. Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, 47.1 artikuluan, honako hau dio:

[...]

Toki-korporazioek berek ezarri ahal izango dute beren bilkura-araubidea. Ohiko bileren egunak alde zuzenetik zehaztuko ditu Udalbatzak.

...].

HIRUGARRENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.2.a) artikuluan ezartzen duenez, 5.000 biztanlera arteko udalerrietan, Udalbatzaren ohiko bilkurak gutxienez hiru hilabetetik behin egin behar dira.

- *Udalbatza Osoaren ohiko bilkuren maiztasuna hilean behin finkatzea legeak xedatutako gutxienerako maiztasunaren barne sartzen da eta, beraz, zuzenbidearen arabera da.*

...”.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udalbatza Osoaren ohiko bilkuren maiztasuna hilean behin finkatzea, hileko azken asteartean, arratsaldeko zazpietan.

BIGARRENA. Finkaturiko egun hauetakoren bat jai egokituko balitz, hurrengo lanegunean egingo litzateke, ordu berean.

HIRUGARRENA. Alkateak egun hori aurreratu edo atzeratu ahal izango du, jaiegunen edo ustekabeko gertaeren kasuan. Kasu horretan, aldez aurretik, udal talde politikoei jakinaraziko zaie eta osoko bilkurari ohiko trataera emateak talde guztien adostasuna beharko du.

3.- INFORMAZIO BATZORDEAK ERATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, Idazkariak lehen adierazitako artikularen arabera, eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar lanegunen barruan egin beharreko bilkura berezi honetan landu beharreko beste gaietako bat informazio-batzorde iraunkorrak sortzearena eta osatzearen dela.

Horren gainean Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2023ko ekainaren 21ean, ondorengoak jasota, besteak beste:

“...

LEHENA. *Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, honakoa xedatzen du bere 38.a) artikuluan:*

[...

Eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar lanegunen barruan, alkateak udalbatzaren bilkura berezietarako deia egingo du, honako gai hauei buruzko erabakiak hartzeko:

a) *Osoko bilkuren maiztasuna.*

b) *Informazio-batzorde iraunkorrak sortzea eta osatzea.*

c) *Udalbatzaren ordezkariak kide anitzeko organoetan izendatzea, osoko bilkuraren eskumenekoak badira.*

d) *Alkateordeak, gobernu-batzordeko kideak (halakorik egon behar bada) eta informazio-batzordeetako lehendakariak izendatzeari buruz alkateak hartutako ebazpenen berri izatea, baita alkatetzak egoki iritzitako eskuordetzeen berri ere.*

...].

BIGARRENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 20.1. artikuluan, ondorengoia xedatzen du:

[...

c) 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta gutxiagokoetan, baldin eta bertako erregelamendu organikoak hala xedatzen badu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu, autonomia-erkidegoko legeriak ez badu beste antolamendu-modu bat aurreikusten eremu horretan, organo batzuk egongo dira, eta organo horien xedea izango da osoko bilkuraren erabakipean jarri behar diren gaiak aztertzea, horiei buruzko txostenak egitea edo kontsultatzea, bai eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea ere, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenei kalterik egin gabe. Korporazioa osatzen duten talde politiko guztiek izango dute organo horietan parte hartzeko eskubidea; horretarako, talde horietako zinegotziak egongo dira, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren proportzioan.

d) Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia X. tituluan adierazitako udalerrietan dago, bai eta Osoko Bilkurak hala erabakitzen duen udalerrietan ere, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, edo Erregelamendu organikoak hala xedatzen duenean.

e) Kontuen Batzorde Berezia udalerrri guztietan dago, 116. artikuluan aurreikusitako egituraren arabera.

...].

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikulua arabera, toki-erakundeko Kontuen Batzorde Berezia Udaltzako osatzen duten talde politikoetako kideek osatuko dute.

HIRUGARRENA. Anoetako udalerrriak, gaur egun, 5.000 biztanle baino gutxiago ditu eta ez du erregelamendu organikorik.

ONDORIOAK

- Anoetako Udalak, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerria izanik eta erregelamendu organikorik ez izanik, ez du zertan informazio-batzorderik sortu, legez beharrezkoa den Kontuen Batzorde Berezia izan ezik.

- Udaltzak, gutxienez, Kontuen Batzorde Berezia osatuko duten talde politikoetako kideak izendatu beharko ditu.

...”.

Kontuan izanda Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenean jasotako arauak xedatutakoa, eta ikusita azkeneko legealdian sortutako batzordeen funtzionamendua ez dela modu egokian kudeatu; izan ere, kasu gehienetan ez dira bete beren aldizkakotasunari, deialdiari, funtzionamenduari eta aktak egiteari aplikatu beharreko

araudia, ezta behar bezalako tratamendua eman osoko bilkuraren erabakia aurretiko nahitaezko irizpenari ere, kasu askotan legearen kontrako jokaerak eraginez. Horregatik guztiagatik, Alkatetzak honako hau proposatu du:

- Legeak eskatutakoak baino informazio-batzorde gehiago ez sortzea, hau da, soilik Kontuen Batzorde Berezia sortzea.

- Kontuen Batzorde Berezia osatzeko ondorengo zinegotziak proposatzea:

- Egoitz Luisa Urkola, batzordeburua (EH Bildu taldea)
- Ana Eloseggi Artola (EH Bildu taldea)
- Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Idazkari Kontu-hartzailearen iritziz, osaketa horrek betetzen ditu Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 125. artikulua Informazio Batzordeen osakerari dagokionez xedatutakoa, alegia: *“Informazio-batzordeak sortzeko erabakian, batzorde horien osaera zehatza zehaztuko da, honako arau hauek kontuan hartuta:*

a) Udalbatzako alkatea edo lehendakaria da horien guztien berezko lehendakaria; hala ere, benetako lehendakaritzak korporazioko edozein kideri eskuordetu ahal izango dio, batzordeak berak proposatuta, dagokion hautaketa egin ondoren.

b) Batzorde bakoitzaren osaera bat etorriko da Korporazioan ordezkaturik dauden talde politikoaren arteko proportzionaltasunarekin.

c) Talde bakoitzaren ordezkari gisa korporazioko kide izan behar duten kideak batzorde bakoitzari zehazki atxikitzeko, bozeramailearen idazkia bidaliko zaio alkateari edo lehendakariari, eta osoko bilkurari horren berri emango zaio. Era berean, ordezkari bat izendatu ahal izango da titular bakoitzeko.

...”.

- Korporazioko kideen artean sistematizatzea aldizkako informazio-bilerak, teknikarien, arlo bakoitzeko zinegotzi arduradunen eta oposizioko kideen artekoak, sail bakoitzean lantzen ari diren espedienteen eta gaien gaineko informazioa emateko.

Nuria Carbonell zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du, ados egonda Kontuen Batzorde Berezirako proposatutako osakerarekin, bere taldeak oraindik ez duela erabaki Batzordeko kide nor izango den, eta lehenbailehen erabakiko eta jakinaraziko duela.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Legeak eskatutakoak baino informazio-batzorde gehiago ez sortzea, hau da, soilik Kontuen Batzorde Berezia sortzea.

BIGARRENA. Kontuen Batzorde Berezia osatzeko ondorengo zinegotziak proposatzea:

- Egoitz Luisa Urkola, batzordeburua (EH Bildu taldea)
- Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
- EAJ taldeko zinegotzi bat, oraindik zehaztekotan.

HIRUGARRENA. Korporazioko kideen artean sistematizatzea aldizkako informazio-bilerak, teknikarien, arlo bakoitzeko zinegotzi arduradunen eta oposizioko kideen artekoak, sail bakoitzean lantzen ari diren espedienteen eta gaien gaineko informazioa emateko.

4.- KORPORAZIOKO KIDEEN DEDIKAZIOAK, ORDAINSARIAK ETA KALTE-ORDAINAK FINKATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du eta gai-zerrendako puntu honen gaineko ondorengo proposamena aurkeztu du:

- Berak, Alkateak, dedikazio osoan jardungo du eta ondorengo ordainsaria izango du, aurreko alkatearena baino ehuneko hamar txikiagoa: 2.661,93 euro gordin, 14 hilabetetan (guztira, urtean: 37.267,02 euro). Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 19a.

- Ana Rosa Elozegi Artola zinegotziak % 25eko dedikazioan jardungo du eta ondorengo ordainsaria izango du: 665,48 euro gordin, 14 hilabetetan (guztira, urtean: 9.316,72 euro). Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 19a.

- Udaleko bilkuretara joateagatik kalte-ordainak, dedikaziorik ez duten zinegotzientzat: 50 euro.

- Udaleko Kontuen Batzorde Berezira joateagatik kalte-ordainak, dedikaziorik ez duten zinegotzientzat: 25 euro.

Horren gainean Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2023ko ekainaren 21ean, ondorengoak jasota, besteak beste:

“ ...

LEHENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 75. artikuluan, ondorengo xedatzen du, besteak beste:

[...]

1. Toki-korporazioetako kideek beren karguak arduraldi eskusiboz betetzen dituztenean jasoko dituzte ordainsariak; kasu horretan, alta emango zaie Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dute dagokien enpresa-kuoten ordainketa, aurreko artikuluan xedatutakoa salbu.

Ordainsari horien kasuan, horiek jasotzea bateraezina izango da herri-administrazioen eta haien mendeko ente, organismo edo enpresen aurrekontuen konturako beste ordainsari batzuekin, baita beste jarduera batzuk garatzeko ere, hori guztia Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Toki-korporazioetako kideek, beren karguak arduraldi partzialarekin betetzen badituzte lehendakaritza- edo lehendakariordetza-eginkizunak betetzeagatik edo eskuordetzak izateagatik, edo hala eskatzen duten erantzukizunak garatzeagatik, lansariak jasoko dituzte kargu horietan benetan emandako denboragatik. Kasu horretan ere, kontzeptu horri dagokionez, alta emango zaie Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dituzte dagozkien enpresa-kuotak, aurreko artikuluan xedatutakoa salbu. Ordainsari horiek ezin izango dituzte gainditu, inola ere, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritako mugak. Dedikazio partzial hori dakarten karguak eta horien ordainsariak zehazteko osoko bilkuraren erabakietan, ordainsari horiek jasotzeko behar den gutxieneko dedikazioaren araubidea jaso beharko da.

Herri-administrazioetako eta haien mendeko ente, organismo eta enpresetako langileak diren toki-korporazioetako kideek lanalditik kanpo dituzten eginkizunetarako dedikazio partzialagatiko ordainsariak jaso ahal izango dituzte, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 5. artikuluan adierazitako baldintzetan, artikulua honen seigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Arduraldi eskusiborik edo arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek bakarrik jasoko dute parte hartzen duten korporazioko kide anitzeko organoen bilkuretara benetan joateagatik, udalbatzak adierazitako zenbatekoan.

...].

BIGARRENA. *Dedikazioengatiko ordainsarien mugari dagokionez, Toki-entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013ko Legeak, 75. bis artikulua berria sortu zuen, korporatiboan ordainsariak mugatzeko xedearekin.*

27/2013 Legeak aldatu zuen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria, honako hau erantsiz, besteak beste:

[...]

11. Aurrekontu-egonkortasuneko helburuen esparruan, eta Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak, Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunaren Legeak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriak toki-araubidearen eta toki-finantzaketaren arloan ematen dizkieten eskumen eta ahalmenen arabera, euskal lurralde historikoetako foru-organismoek toki-korporazioetako kideen, behin-behineko langileen eta toki-korporazioen eta horien sektore publikoaren zerbitzura diharduten gainerako langileen eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioen ordainsari eta asistentzia guztien gehieneko mugak zehaztuko dituzte. Ordainsari horiek zehazteko, Estatuko legeriak ezarritako printzipioak eta egitura hartuko dira kontuan.

...].

Eskumen hau garatu zen, lehen unean, azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bidez, bere bosgarren artikulua aurreneko atalean ondoko hau xedatzen zuelarik: “1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauan zehaztuko dira toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak”.

6/2022 Foru Arauak, abenduaren 23koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, Zazpigarren Xedapen Gehigarrian arautzen ditu asistentziagatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak, udalerriko biztanleriaren kopurua oinarritzat hartuta. Anoetako udalerrriaren kasuan, ordainsari eta asistentziengatik zenbatekoaren muga izango litzateke Eusko Jaurlaritzako zuzendari baten urteko soldata - % 15, adierazitako arauaren 3. atalaren bi baldintzak betetzen baitira.

Mugak ezartzeko erreferentzia gisa erabilitako Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean ezarritakoak izango dira. Kasu honetan, erabilitako erreferentzia da 29/2023 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoko langileen ordainsarien 2023rako igoerak onartzen dituen Erabakia argitaratzea xedatzen duena. Zehazki, bertan jasotako akordioaren seigarren puntuan, Eusko Jaurlaritzako zuzendarientzako, ondorengo soldata jasotzen da:

- Hilabeteko: 5.566,35 €

- Urteko: 77.928,90 €

HIRUGARRENA. *Toki-entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013ko Legeak mugatu zuen dedikazioen erregimena duten korporatiboen kopurua, horretarako 7/1985 Legearen 75.ter artikulua sortuz, ondorengo edukiarekin, besteak beste:*

[...]

1. Lege honen 75. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, udaletako kideek arduraldi eskusiboko erregimenean ematen dituzten zerbitzuak honako muga hauei egokitu beharko zaizkie:

(...)

c) 2.001 eta 3.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan, gehienez ere bi kidek bete ahal izango dituzte beren zerbitzuak arduraldi eskusiboan.

...].

Halaber, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 32. artikuluan toki-erakundeetako ekonomia eskubideak eta arduraldi araubidea arautzen ditu, ondorengo edukiarekin:

[...]

1. Toki-ordezkariek eta -ordezkariek toki-araubidearen oinarritzko legerian aurreikusten diren eskubide ekonomikoak eta arduraldi-araubidearen modalitateak izango dituzte, eta, hala badagokio, lege honetan bereziki arautzen direnak.

2. *Dedikazio eskusiborako eskubidea aitortzen zaio alkateari, esanbidez uko egin ezean, eta ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzari alta emateko eskubidea, 1.000 biztanletik gorako udalerrietan.*

3. *Osoko bilkurak, alkateak proposatuta, arduraldi eskusiboan edo partzialean dauden karguak edo korporaziokideak zehaztuko ditu, baita dagozkien ordainsariak ere. Osoko bilkuraren erabakiak, dedikazio partzialaren kasuan, ordainsari horiek jasotzeko gutxieneko dedikazioaren araubidea jaso beharko du.*

4. *Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik jaso ahal izango dituzte ordainketak, osagai finko batek eta osagai aldakor batek zehaztuko dituzten bertaratzeengatik. Udal-ordezkarik guztientzat berdina den osagai finkoaren bidez, kide anitzeko organoetara eta bileretara edo kargua betetzearen ondoriozko jardueretara joatea ordainduko da. Osagai aldakorren bidez, ordezkaritza-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak bereiziko dira. Udalbatzak zehaztu ahal izango ditu korporatibo bakoitzak bertaratze gisa jaso ahal izango dituen urteko gehieneko mugak.*

5. *Toki-erakundeetako kideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik, herri-administrazioetan oro har aplikatzekoak diren arauen arabera eta osoko bilkurak arau horiek garatzeko onartzen dituen arauen arabera.*

6. *Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako kide hautetsien funtzio publikoak betetzeko ezinbesteko denboratzat hartzen da kasuan kasuko erakundeetako kide anitzeko organoetara joan eta horietan parte hartzea. Izaera hori izango du, halaber, kide hautetsiek ordezkaritza-zereginetan, eskuordetutako eginkizunetan edo beste erakunde batzuekin edo herritarren erakunde edo elkarteekin egindako bileretan emandako denborak, bai eta beren karguari dagokion beste edozein jardueratan emandako denborak ere, kontuan hartuta, hala badagokio, eskubide horiei dagokienez lan-legerian eta funtzio publikoari buruzko legerian aurreikuspenak.*

...].

LAUGARRENA. *Azkenik, Korporatiboen araubide ekonomikoa onartzeko edo aldatzeko organo eskuduna Udalbatza da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

ONDORIOAK

- *Dedikazio eskusiboa izan dezaketen udaletako kideen muga errespetatzen da egindako proposamenean.*

- *Horientzat proposatutako soldatak legeak ezarritako mugen barne sartzen dira.*

- *Udalbatzari dagokio finkatzea arduraldi eskusiborik edo arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik kalte-ordainak.*

...”.

Alkatezak aurkeztutako proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Alkateak dedikazio osoan jardutea, ondorengo ordainsariarekin: 2.661,93 euro gordin, 14 hilabetetan (guztira, urtean: 37.267,02 euro). Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 19a.

BIGARRENA. Ana Rosa Elozegi Artola zinegotziak % 25eko dedikazioan jardutea ondorengo ordainsariarekin: 665,48 euro gordin, 14 hilabetetan (guztira, urtean: 9.316,72 euro). Eraginkortasun-data: 2023ko ekainaren 19a.

HIRUGARRENA. Udaleko bilkuretara joateagatik kalte-ordainak, dedikaziorik ez duten zinegotzientzat, ondorengo izatea: 50 euro.

LAUGARRENA. Udaleko Kontuen Batzorde Berezira joateagatik kalte-ordainak, dedikaziorik ez duten zinegotzientzat: 25 euro.

5.- KIDE ANITZETAKO ORGANOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta bere proposamenaren berri eman du, Udalbatzak ordezkari behar duen mota guztietako batzordeetarako, erakundeetarako eta elkarteetarako izendatu beharreko ordezkariak jasoz, erakunde bakoitzaren estatutuek ezarritakoaren arabera, ondorengo moduan:

KIDE ANITZEKO ORGANOETAN UDALBATZA ORDEZKATUKO DUTENAK:

- **Mendi Nekazaritza (Tolomendi) Elkartea:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia

- **Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola

- **Tolosaldea Garatzen:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola

- **UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea:**
 - Titularrak: Amaia Urkola Arocena eta Mikel Olano Aburuza
 - Ordezkoak: Ana Elozegi Artola eta Egoitz Luisa Urkola

- **Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia

- **Tolosako Hiltegi Mankomunitatea:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia

- **Loatzo Musika Eskolako Herri Mankomunitatea:**
 - Titularra: Ana Eloseggi Artola
 - Ordezkoa: Mikel Olano Aburuza

- **Apatterreka Industriagunea, S.L.:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Eloseggi Artola

- **Udalbiltza Patzuergoa:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Eloseggi Artola

- **Haurreskola Patzuergoa:**
 - Titularra: Maialen Mujika Lizaso
 - Ordezkoa: Amaia Urkola Arozena

- **Hobeki Elkartea:**
 - Titularra: Aitzol Esnaola Zubeldia
 - Ordezkoa: Egoitz Luisa Urkola

- **Anoetako Herri Ikastola**
 - Titularra: Maialen Mujika Lizaso
 - Ordezkoa: Amaia Urkola Arozena

- **Tolosaldeko euskararen mahaia**
 - Titularra: Mikel Olano Aburuza
 - Ordezkoa: Ana Eloseggi Artola

- **EUDEL**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Eloseggi Artola

- **Euskal Fundoa**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Eloseggi Artola

Alkatearen proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Honako ordezkari hauek izendatzea kide anitzetako organoetan Udalbatza ordezkari deitzen:

- **Mendi Nekazaritza (Tolomendi) Elkarte:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **Tolosaldea Garatzen:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea:**
 - Titularrak: Amaia Urkola Arocena eta Mikel Olano Aburuza
 - Ordezkoak: Ana Elozegi Artola eta Egoitz Luisa Urkola
- **Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Tolosako Hiltegi Mankomunitatea:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Loatzo Musika Eskolako Herri Mankomunitatea:**
 - Titularra: Ana Elozegi Artola
 - Ordezkoa: Mikel Olano Aburuza
- **Apatterreka Industriagunea, S.L.:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **Udalbiltza Patzuergoa:**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **Haurreskola Patzuergoa:**
 - Titularra: Maialen Mujika Lizaso
 - Ordezkoa: Amaia Urkola Arozena
- **Hobeki Elkarte:**
 - Titularra: Aitzol Esnaola Zubeldia
 - Ordezkoa: Egoitz Luisa Urkola
- **Anoetako Herri Ikastola**
 - Titularra: Maialen Mujika Lizaso
 - Ordezkoa: Amaia Urkola Arozena

- **Tolosaldeko euskararen mahaia**
 - Titularra: Mikel Olano Aburuza
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **EUDEL**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola
- **Euskal Fondoa**
 - Titularra: Egoitz Luisa Urkola
 - Ordezkoa: Ana Elozegi Artola

BIGARRENA. Kide anitzetako organo bakoitzari ebatzen honen jakinarazpena egitea.

6.- **2023KO UZATILAREN 23KO HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.**

Ikusirik 2023ko uztailaren 23an egingo diren Gorte Nagusietarako Hauteskundeen espedienteak.

Ikusirik Estatuko Aldizkari Ofizialean (maiatzaren 30eko BOE, 128. zk.) argitaratu dela 400/2023 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, Diputatuen Kongresua eta Senatua desgiteari eta hauteskundeak deitzeari buruzkoa.

Kontuan izanda Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikulua xedatutakoa, zeinaren arabera hauteskunde-mahaietako kideen izendapena Udaletxetako Udalbatzetan egindako zozketa publiko bidez egin behar da.

Anoetako bi hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, lortutako emaitza ondorengo izanik:

“A” MAHAIA
BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001
ANOETAKO HERRI IKASTOLA, ERGOIEN BAILARA 5

Mahaiburua:

- Titularra: ASIER COLAS COLLAZO (hautesle-zkia. A0379)
 - 1. ordezkoa: ELENA GOYOGANA LOPE (hautesle-zkia. A0692)
 - 2. ordezkoa: IZASKUN INZA LIZARZA (hautesle-zkia. A0753)
 - 3. ordezkoa: ALEJANDRO HUERTAS HERRERO (hautesle-zkia. A0724)

1. Bokala:

- Titularra: ICIAR GARMENDIA LARRARTE (hautesle-zkia. A0619)
 - 1. Ordezkoa: KOLDO DESCALZO ROSAS (hautesle-zkia. A0420)
 - 2. Ordezkoa: XABIER AGIRREZABALA ZUBELDIA (hautesle-zkia. A0014)
 - 3. Ordezkoa: MIKEL IRAZUSTA ETXEBERRIA (hautesle-zkia. A0770)

2. Bokala:

- Titularra: JOSE ANTONIO CALVO MARTINEZ (hautesle-zkia. A0343)
 - 1. Ordezkoa: ADRIAN DAVILA MARCIANES (hautesle-zkia. A0409)
 - 2. Ordezkoa: LEIRE HILARIO IRAOLA (hautesle-zkia. A0719)
 - 3. Ordezkoa: IVAN DESCALZO CACERES (hautesle-zkia. A0417)

“B” MAHAIA
BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001
ANOETAKO HERRI IKASTOLA, ERGOIEN BAILARA 5

Mahaiburua:

- Titularra: MIKEL ZAPIRAIN ARTANO (hautesle-zkia. B0692)
 - 1. Ordezkoa: NEREA OTAMENDI ZUBELDIA (hautesle-zkia. B0296)
 - 2. Ordezkoa: INMACULADA KORTAJARENA URKOLA (hautesle-zkia. B0020)
 - 3. Ordezkoa: LUIS ANGEL ORIA MUÑAGORRI (hautesle-zkia. B0264)

1. Bokala:

- Titularra: MAIALEN OTERMIN PAGOLA (hautesle-zkia. B0311)
 - 1. Ordezkoa: NEREA PINEDA BRIZ (hautesle-zkia. B0369)
 - 2. Ordezkoa: LAUREANO JAUREGUI SARASOLA (hautesle-zkia. B0013)
 - 3. Ordezkoa: MIREN BEGOÑA MUGICA TOLARETXIPI (hautesle-zkia. B0197)

2. Bokala:

- Titularra: PAULINO MAYOR ARSUAGA (hautesle-zkia. B0150)
 - 1. Ordezkoa: IRAIA OTXOA ADURRIAGA (hautesle-zkia. B0316)
 - 2. Ordezkoa: ANGEL LUIS OVIEDO IRASTORZA (hautesle-zkia. B0320)
 - 3. Ordezkoa: RAJAE YOUSFI EZZNAGUI (hautesle-zkia. B0671)

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

7.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, HORIEN ARTEAN:

- ALKATEORDEEN IZENDAPENA
- TALDE POLITIKOEN BULEGOEN HAUTAKETA

Alkatetzak 2023ko maiatzaren 16tik 2023ko ekainaren 16a bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du, baita ekainaren 21ean eta 22an, hurrenez hurren, talde politikoaren bulegoen hautaketaren eta alkateordeen izendapenaren gainean emandakoena ere. Azkeneko bi dekretu hauetan ebatzitakoa honakoa da:

- 2023ko ekainaren 21eko Alkatetzaren dekretua, talde politikoaren bulegoen hautaketari buruzkoa:

“... ”

BAKARRA. *Talde politiko bakoitzari hurrengo bulegoak esleitzea:*

- 2. aretoa: EH Bildu
- 3. aretoa: EAJ-PNV

...”

- 2023ko ekainaren 22ko Alkatetzaren dekretua, alkateordeen izendapenari buruzkoa:

“... ”

LEHENA. *Zinegotzien artean, hurrengoak alkateorde izendatzea:*

1. *Alkateordea:* Ana Elosegui Artola, EH Bildu udal talde politikoko kidea den zinegotzia.
2. *Alkateordea:* Aitzol Esnaola Zubeldia, EH Bildu udal talde politikoko kidea den zinegotzia.

BIGARRENA. *Izendatu direnei ebazpen hau jakinaraztea eta, era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

HIRUGARRENA. *Ebazpen honen berri ematea Udaltzatzen egingo duen hurrengo bilera arruntean.*

...”

Nuria Carbonell zinegotziak hitza hartu du eta, 2023ko ekainaren 16ko 335. Alkatetzaren dekretuaren gainean, eskatu du, mesedez, ebazpen horretan onetsitako udal lanpostuen balorazioaren behin betiko dokumentazioa bidaltzeko, izan ere, bere taldeak ez du prozesu horren gaineko inolako informaziorik ez dokumentaziorik jaso. Idazkariak hala jaso du aktan eta agindu hori langileen ordezkariari helaraziko diela hitzeman du.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

8.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

268. DEKRETUA (2023.05.18)		
292. DEKRETUA (2023.05.30)		
331. DEKRETUA (2023.06.13)		
Hartzekodunak	IFZ / IFK	
MUNDU MIRA KOOP. ELK.	F75054122	
Prozedura		
Faktura kontratu txikietan onartzea		
Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Mundu Mira Koop. Elk. Komunikazio aholkularitza zerbitzua.	23029	1.023,45 €
	23045	1.023,45 €
	23071	1.023,45 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 16an eta 30ean, eta ekainaren 13an egindako eragozpenezko txostenak.

2021eko urtarrilaren 8ko dekretu bidez Mundu Mira Koop. Elk. enpresari esleitu zitzaion kontratua komunikazio-aholkularitza zerbitzua emateko. Kontratu hori 2021eko abenduaren 31a arte egon zen indarraldian. Horrezkerotik, enpresa berdinak komunikazio-aholkularitza zerbitzua ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinarririk gabe, eta hilabetero enpresak helarazitako fakturak iritsi dira.

Anoetako komunikazio-aholkularitza zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da 2022ko urtarrietik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzailerei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...)* Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte

eginez".

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, "Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira".

Gainera, "Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako" kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arauzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak komunikazio-aholkularitza zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

268. DEKRETUA

2023.05.18.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Telefono zenbakien eramangarritasuna	P23042272	97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 16an egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Orain arte Sarennet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan "telefono zenbakien eramangarritasuna" kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, "Serbidorearen segurtasun kopien mantenua" kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;
- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;
- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

270. DEKRETUA (2023.05.18)

296. DEKRETUA (2023.05.30)

Hartzekodunak	IFZ / IFK
LANDARRI SLU	B20531448

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
23049880031	2023.04.13	273,68 €
23049880032	2023.04.13	273,68 €
2305988027	2023.05.08	596,08 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 16an eta 30ean egindako eragozpenezko txostenak.

Goian aipatutako gastuak ez du inolako oinarririk, 2021ean irregularki esleitutako kontratuaren iraupena 2021eko abenduaren 31n bukatu baitzen.

2021eko urtarrilaren 18an egindako esleipen dekretuan ebatzi zen “Anoetako hilerriko lanak aurrera eramateko zerbitzua kontratu txikiaren bidez (B20531448) Landarri, S.L. enpresari esleitzea, bere eskeintzaren arabera ondorengo prezioen truke...”. Dekretu horretan jasotzen zen legez, “Kontratu txikia da, SPKLren 131.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beraz ezingo du urte beteko iraupena baino gehiago izan, aipatu Legearen 29.8. artikuluaen arabera”. Halaber, honakoa jasotzen zen: “Kontratuaren iraupena 2021eko urtarrilean 1etik abenduaren 31^a artekoa izango da, kontratu honek ezin du urtebeteko iraupena baino gehiago izan eta ez da luzagarria izango”.

Gainera, kontratu txiki hori ez zen lehenengoa. Aitzitik, Idazkaritza-kontuhartzaitza honek ikusi ahal izan duenez, badaude beste hainbat kontratu txiki, kontratazio hau gutxienez 2017tik kontratu txikiren bidez kateatzen joan dela adierazten dutenak: 2017ko otsailaren 1eko dekretua, 2019ko otsailaren 12koa, 2020ko otsailaren 5koa...

Hortaz, argi dago urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua dela, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe, eta lizitazio-prozedura egokiaren bidez esleitu gabe, 9/2017 Legearen 131. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2023an, gainera, ez dago oinarri formala ematen dion kontratu irregularrik ere; aitzitik, zerbitzua aldez aurreko kontraturik gabe eman da.

270. DEKRETUA

2023.05.18.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
EGOITZ JAUREGI ITURRIOZ	72507188X
ME	Zenbatekoa
354-2023	169,48 €
479-2023	169,48 €

Kontzeptua

Udalak Bake-epaitegiko idazkariari ordaindutako ordainsari osagarria

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 28an egindako eragozpenezko txostena.

Bake-epaitegiko idazkari funtzioak betetzen dituen pertsona ez da udal-funtzionario bat; beraz, Estatuko Administrazioak kargua betetzeagatik ematen duen ordainsaria jasotzeko eskubidea baino ez du, eta Udalak ezin dio aparteko ordainsaririk ordaindu, ez baita udal-administrazioan integratzen.

289. DEKRETUA

2023.05.30.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.267,21 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko maiatzeko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko maiatzaren 30ean eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, bestea beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duen eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espeditatearen izapidetza eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

290. DEKRETUA

2023.05.30.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.920,19 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko maiatzeko nomina.

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko maiatzaren 30ean eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, bestea beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenak urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutaturako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

291. DEKRETUA

2023.05.30.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
GPASoft, S.L.	B61842134

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1205	2023.04.21	816,75 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 30ean egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik;
- Kiroldegian abonatu eta sarreraren kontrola egiteko programaren mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako.

294. DEKRETUA

2023.05.30.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844237733	2023.025.07	532,87 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko maiatzaren 30ean egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.
- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

295. DEKRETUA

2023.05.30.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEG. Y REAS SA	A28141935

Prozedura

Kontratu txikia

Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
728	2023.05.10	337,64 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko maiatzaren 30ean egindako eragozpenezko txostena.

Eragozpenak:

Anoetako Udalak ez du kontraturik esleitu, ezta formalizatu ere, Mapfre España enpresarekin. Horren kontra Idazkari Kontu-hartzaile honek eragozpenezko txostenak egin zituen, 2021eko urriaren 27an eta 2022ko abenduaren 1ean. Orain, beste eraikin bat atxikitu zaio aseguru poliza horri, hain zuzen ere, Modestoenea eraikin eta lursailaren aseguruaren zati proportzionala. Hortaz, berriro ere eragozpenezko txostena egiten du gaurko datarekin Idazkari Kontu-hartzailean, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko OMI 1/2023 espedientearen berri ematen du, Alkateak 262. Dekretuz (2023ko maiatzaren 16koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Ez dago espedienterik (beherago azalduta)	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-urtarrila. Euskal pilota saioak Fra. zk. 01-23 Kuku Elkartea (G20144366) Fakt-133 (225) Sarrera erregistroa: 2023.02.13	1.062,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-otsaila. Euskal pilota saioak Fra. zk. 02-23 Kuku Elkartea (G20144366) Fakt-223 (225) Sarrera erregistroa: 2023.03.08	1.098,00 €
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Kultura	Alkatea

Azkenik, Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko ekainaren 16ko 336. Alkatetza dekretuan hartutako erabakiaren gainean egindako kontrako txostenaren berri eman du,



hain zuzen ere, Maddi Sarasola Eizmendi oraindik sortu gabe dagoen Ingurumen dinamizatzailea lanpostua betetzeko bitarteko funtzionario izendatzearen kontrakoa.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

Ez dago.

GALDE-ERREGUAK

9.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 18:55etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino